

3/2025 akta

## **AKTA, OSATEK, S.A. SOZIETATE PUBLIKOAK 2025EKO EKAINAREN 13AN EGINDAKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUARENA**

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua eratu da OSATEKen egoitza sozialean (Urkixo zumarkalea 36-5, 48011 Bilbao), 2. aretoan, beheko solairuan, 2025eko ekainaren 13ko 10:30ean, eta honako hauek izan dira bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

### **BERTARATUAK:**

PRESIDENTEA: Enrique Fernando Peiró Callizo jauna

KIDEAK:

- M<sup>a</sup> Teresa Martínez de Albeniz Zabaleta  
Miren Lorea Bilbao Artetxe
- José Enrique Corchón Álvarez
- Fernando Aguirre de Miguel
- Maiteder Mielgo Rubio, idazkari gisa.

Era berean, Héctor Hernando Bocos (OSATEKeko zuzendari gerentea), etorri da bilerara, hitzarekin baina botorik gabe.

Ezin etorria adierazi du Susana López Altunak, botoa Kontseiluko presidentearen esku utzita.

### **GAI-ZERRENDA:**

#### **1. Aurreko bilkurako akta onartzea, hala badagokio**

Aurreko bilkurako akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

#### **2. Zuzendari kudeatzaile berriaren aurkezpena**

Zuzendari gerenteak eskerrak eman dizkio Administrazio Kontseiluari izendapenerako jarritako konfiantzagatik, eta konpromisoa hartzen du OSATEK hobetzeko eta agintzen zaizkion helburuak lortzeko.

#### **3. Osateken 2025eko egoera-txostena**

Zuzendari gerenteak aurkezpen bat egin du eta, bertan, erresonantzia magnetikoko zerbitzuaren (EM) egungo testuingurua deskribatu du oro har osasun-sistema publikoan, eta, zehazki, OSATEKena, sistema horren barruan.

Ondoren, 2025eko ekitaldi honetarako OSATEKen itxiera-proiektzioa azaldu da, bai maila ekonomikoan, bai jardura asistentzian, eta esleitzen zaion aurrekontuaren arabera lortuko liratekeen emaitzak.

Helburua da:

- Ekitaldi honetarako OSATEKen galera ekonomikoak ahalik eta txikiak izatea.
- Egiten den asistentzia-jardueraren maila ahalik eta handiena izatea, eta, beraz, itxarote-zerrendak murriztea.
- Langile guztiek beren lanaldiaren %100era iristeko aukera emango duen jarduera bat bermatzea.
- Osakidetzarentzako fakturazioa ahalik eta txikiak izatea.
- EM makina bat bermatzea lurraldeka asteburuetan, gerta daitezkeen larrialdietarako.

Honako hau erabaki da:

Ekitaldi honetan bertan kostuak eta ordainsariak minimizatzeko neurriak hartzeko konpromisoarekin (erradiologo laguntzailearekin asteburuetan irekitzea), eta, batez ere, hitzarmen kolektiboa berritzeko negoziazioei berehala berrekiteko konpromisoarekin, egungo langile-kostuak murrizteko helburuarekin, OSATEKen 2025eko ekitaldirako aurrekontu-esleipena benetan egindako jarduerara egokitzea erabaki da. Jarduera hori izango da langile finkoekin eta, aldi berean, ESlek eskatzen dutenarekin egiteko gutxienezkoa.

Horrek 29.127.837€ inguruko aurrekontua ekarriko ligo, eta, beraz, hori izango litzateke Osakidetzari fakturatu beharrekoa; ekitaldia ixtea OSATEKentzat 790.000€ inguruko galerarekin, eta itxarote-zerrendak 2.600-2.900 paziente inguru murriztea.

#### **4. Osatek epe labur eta ertainean kudeatzeko proposamen estrategikoak.**

Zuzendari gerenteak alde aurretik bidalitako txostena aurkeztu du. Txosten horretan, epe labur eta ertainerako gogoeta, datu eta proposamen batzuk jasotzen dira, OSATEKi eta Osakidetzari eragiten dietenak, osasun-sistema publikoaren barruko EM proben kudeaketaren testuinguruan.

Esku hartu beharreko 3 eremu orokor identifikatu dira:

- 1- OSATEKen funtzionamendua optimizatzea.
- 2- OSATEKetik Osakidetzara informazioaren sistemak eta teknologiak integratzea eta/edo migratzea.
- 3- Osakidetzatik OSATEKerako deribazioa berrikustea, eta larrialdien kudeaketa berrikustea.

Proposamen horiek, ondoren, epe labur eta ertaineko ekintza jakin batzuetara eramaten dira. Honako hauek adostu dira:

##### Epe laburrerako neurriak

- OSATEKek lan-baldintzen akordioa berrikustea, eta hitzarmen kolektiboa berri.
- Bi erakundeen arteko lantalde bat sortzea, OSATEKen informazio-sistemak eta teknologiak Osakidetzan ahalik eta modurik egokienean integratzeko.
- Aldi baterako behintzat, Osakidetzaren erradiologo kolaboratzailearen figura sustatzea OSATEKen.

- Lantalde bat sortzea lurralde bakoitzean EMko larrialdiak kudeatzeko protokolo bat definitzeko.

#### Epe ertainerako neurriak

- Osakidetzak OSATEKi eta sektoreko gainerako eragileei bideratu beharreko zerbitzu-zorroa berrikustea, epe laburreko neurrien ondoren zehaztu den egoeraren arabera.
- Euskal osasun-sistema publikorako EM makina berrietan egin beharreko inbertsioa planifikatzea, epe laburrerako neurrien ondoren zehaztu den agertokiaren arabera.
- Osakidetzak, oro har, EMaren indikazioaren berrikuspenean/optimizazioan sakontzea.

### **5. Barne-funtzionamenduko beste proposamen batzuk:**

- *Zuzendaritza Asistentziala izendatzea.*

Zuzendari kudeatzaileak ZUZENDARITZA ASISTENTZIALAREN figura berreskuratzeko beharra azaldu du. Organigraman badago plaza hori, atribuzio zehatzak ditu, baina duela urte askotatik dago hutsik. Zuzendaritza-taldearen eta lurralde-arduradunen arteko koordinazio egokirako eta 3 lurraldeen jarduketan integrazio handiagoa lortzeko funtsezko figura dela uste da. Proposatzen da, gainera, izendapen horrek ez dezala gailak eragin erakundearentzat (kargua betetzen duenak egiten ez duen eta, beraz, jasotzen ez duen laguntza-lanak estaliko du dagokion gehigarria). Lanpostua betetzeko deialdi publikoa (barnekoa) izapidetzea erabaki da.

- *Aldaketak lurralde-buruzagitzetan*

Zuzendari kudeatzaileak adierazi du kargu horiek betetzen dituzten izendapen askeko pertsonak zuzendaritzak ezarritako helburuekin lerrotuta egon behar direla, eta helburu horiek beren lurraldeetako taldeen artean koordinatzen eta lortzen lagundu behar dutela. Egoera zehatz bakoitza aztertzea erabaki da, eta, hala badagokio, dagozkion aldaketak antolatzea.

- *Goi-mailako informatikariaren lanpostua sortzea*

Zuzendari kudeatzaileak OSATEKen informatika-zerbitzuaren egungo egoera azaldu du, egunerokotasunerako oso gutxi dimentsionatu dena (arduraduna eta erdi-mailako teknikari bat baino ez), baina are gehiago Osakidetzan integratzeko epe laburrera heldu beharko diren errokin edo adosten den bilakaerarekin. Goi-mailako informatikariaren plaza berri bat sortzea proposatzen da, zerbitzua indartzeko.

Administrazio Kontseiluak erabaki du, plaza hori behin betiko sortu aurretik, plaza hori aldi baterako betetzeko deialdi baten bidez betetzeko aukera aztertzea, aldi baterako hornitu ahal izateko, egoeraren bilakaera ikusi arte.

- *Donostian matxuratu den makina*

Zuzendari kudeatzaileak azaldu du zein den OSATEKen Donostiako 4 makinetako baten egoera, otsailetik matxuratuta. Horren ondorioz, itxaron-zerrendak ugaritzen ari dira, eta asistentzia-prozesua atzeratzen, nahiz eta txandak erdia konpentsatzen ari diren Amarako makinan arratsaldeetan txanda berriak irekitzen direlako, eta txandak asteburuetan ere irekitzen saiatzen ari direlako. Bestalde, horrek ezinegon handia sortu du zentroko langileen artean, ez delako inolako konponbiderik hartu eta pazienteen kezak eta tentsio-egoerak handitu direlako.

Matxuratutako makina konpontzea eta makina berri bat erostea antzekoa da kostuaren aldetik; beraz, makinaren antzintasuna kontuan hartuta (10 urte), aukera logiko bakarra makina berritzea izango litzateke. Baina, gaur egungo egoeran, Osakidetzak uste du egokiagoa dela ospitaleari makina berri bat ematea, eta ez berri bat erostea OSATEKentzat; aurrerago baloratuko da OSATEKen makina matxuratuaren ordezkari berri bat erosten den edo ez.

Bestalde, erabaki da, halaber, bien bitartean, egungo asistentzia-egoera ez larriagotzeko eta itxarote-zerrendeiei eusten saiatzeko, Osakidetzak OSATEKen eskaria murrizteko neurriak baloratuko dituela; eta OSATEK, berriz, txanda gehiago irekitzen saiatuko dela.

## **6. Prozesu judizialei buruzko egoera-txostena**

Zuzendari kudeatzaileak OSATEKen abian diren prozesu judizialen egoera azaldu du. Prozesu horiek alde aurretik bidalitako txostenean jasota daude, eta erradiologoek kolektiboaren 3 eskaerei buruzkoa nabarmendu du, lurralde bakoitzeko bat. Eskaera horren bidez, pizgarria oporraldietan ordaintzea eskatzen dute. Eragin ekonomiko negatiboa nabarmentzen du (1.170.000€, orain arte eskatutakoa konpentsatzeko), eta urteko 500.000€ inguruko eragin iraunkorra, egungo baldintzekin jarraituz gero langile-gastuak areagotuko lituzkeena. Era berean, azaldu du etorkizunean izango duen eragina hitzarmen kolektiboa berritzean jasoko diren baldintzen arabera geratuko litzatekeela, pizgarrien kalkuluari dagokionez.

Bestalde, aurreratu du epaiak orain arte negatiboak izaten ari direla OSATEKentzat eta eskubidea aitortzen zaiela erradiologoei, eta, beraz, erradiologoekin akordio bat negoziatzen ari direla, gutxienez berandutze-interesak ordaintzea saihesteko.

## **7. Negoziazio kolektiboko prozesuaren hasiera.**

Zuzendari kudeatzaileak negoziazioen testuingurua eta negoziatze litzekien alderdiak azaldu ditu, Administrazio Kontseiluak negoziatzearen zehazten dituen helburuak, estrategiak eta lerro gorriak adosteko.

Alde guztiek adostu dute helburuak honako hau izan behar direla:

- Pizgarriak egungo ordainsari-ereduan duen pisua murriztea.
- Pizgarriak oinarrizko soldaterekiko duen pisua enpresako kolektibo guztien artean harmonizatzen saiatzea.
- Enpresaren errentagarritasun ekonomikoa berreskuratzea bilatzea, bai eta sozietate publiko batentzako arrazoizko soldaten irudia ere.

- Negoziazioaren erdigunean datu argi eta objektiboetan oinarritutako informazioa jartzea, alderdi guztiak OSATEKen egungo egoeraz jabetu daitezen, eta, konponbidea lortzeko, egoera hori bideratzeko barne-neurriak hartzeko.

#### 8. Galde-eskeak.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera 12:45ean amaitu da.



IDAZKARIA

Sin.: Maiteder Mielgo Rubio



PRESIDENTEA

Sin.: Enrique Peiró Callizo

